

A U R K I B I D E A

1 Kontzeptuak

2 Urratsak

3 Aktibitateak

4 Ebaluaketa

5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

1 KONTZEPTUAK

Hilabete bat lau astez bederen egina da. Hilabetea, 30 edo 31 egunez osatua den denboraldia da.

Otsaila salbuespena da, hiru urtez segidan 28 egun dituelako eta laugarren urtean 29 (bisisturtea).

Urteko hilabeteak hauek dira, ordenan : urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua (agorrila), iraila (buruila), urria, azaroa eta abendua.

Zubereraz : urtarila, barantaila, martxoa, apirila, maiatza, arramaiatza, üztaila, agorrila, bürüila (setemere), ürrieta, azaroa, abentüa.

2 URRATSAK

Ikasleak dakitenetik abiaraz.


Hilabetearen neurtzea eguneroko ihardueren bidez eginen da. Ondotik hilabetearen irudikapen ezberdinekin usatuko da haurra. Berak ere hilabetearen itxuratzeko irudikapen ezberdinak proposa ditzake.

3 AKTIBITATEAK

EGUNEROKO IHARDUERETAN OINARRITUZ

▼ Hilabetearen xerrenda ormirudian  Eguna moduloko 1. eta 1. bis fitxak

Zazpi eguneko taulek astearen xerrenda osatzen dute eta lau asteko (gehi batzutan zenbait egun) xerrendek hilabetearena. Beraz, egunez-egun eta astez-aste hilabetearen xerrenda eraikiko dugu.



Egunaren, astearen eta hilabetearen iraupenek proportzionalki agertu behar dute. Horrek erran nahi du irakasleak hilabete bateko lana murruan itsasi nahi baldin badu, bederen sei metroko eremua behar duela libre atxiki, non ez duen akordeoi gisa apailatzen. Helburua : haurra hilabetearen luzetasunari ohartaraztea.

▼ Landare edo zuhaitz baten garapena neurt astero.


Adibidez maiatzean ilarra (baba) erein eta astero izariak har.

4. astea

3. astea

2. astea

1. astea



HILABETEAREN IRUDIKAPEN EZBERDINAK

▼ Hilabete baten irudikapenak egutegian. Horretarako, ikaslea irudikapen ezberdinen atzemaiten saiatuko da etxean eta gelara ekarriko ditu. ikaslearen 1. fitxa



Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.	Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.	Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
26	27	28	29	30	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16


Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.	Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.	Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	1	2	3	4	5	6



As.	28	Or.	14
Az.	29	Lr.	15
Og.	30	Ig.	16
Or.	31	Al.	17
Lr.	1	As.	18
Ig.	2	Az.	19
Al.	3	Og.	20
As.	4	Or.	21
Az.	5	Lr.	22
Og.	6	Ig.	23
Or.	7	Al.	24
Lr.	8	As.	25
Ig.	9	Az.	26
Al.	10	Og.	27
As.	11	Or.	28
Az.	12	Lr.	29
Og.	13	Ig.	30




27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30



1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4

▼ Hilabetearen zikloa osatzen

Hilabetearen lantzeko irudikapena, honela egin daiteke, adibidez otsailekoa :




hilabetea

▼ Irudikapen librea  ikaslearen 2. fitxa. Haur bakoitzak hilabete baten irudikapena egiten du taula batean.

Irudikapena zinez libre izateko, taulak 32 x 32 laukitxokoa izan beharko luke. Irakaslearen esku dago. Hemen proposatzen duguna 8 x 8 koa da.


ZENBAT EGUN DITU HILABETEA ?

▼ Konda ditzagun hilabeteetako egunak ukabilaren tontor eta ziloekin (ganbil eta ahurrekin).



▼ Hilabete baten irudikapena astearenean oinarrituz  ikaslearen 3. fitxa

Elementu kubikoak hartuz urtearen irudikapena egin daiteke. Hilabeteek duten egun kopurua kondutan hartuz eta ordenan ezarriz. Manipulazioa gelan egin daiteke edo ariketa fitxa baten bidez.



HILABETEAK HAURRAK BIZI DUENAREKIN LOT ikaslearen 4. fitxa

▼ Haurra eta bere sort-hilabetea.

Hurrei galda zein den beren sort-hilabetea.

Jokoa : Ikasleek ahoz eman behar dute (erranaldi baten bidez) beren lagunen sort-hilabetea. Bi sarbideko taula asma daiteke, alde batean gelako ikasleen izenak eta bestean hilabeteak. Laukietan ikasle bakoitzaren sort-hilabetea gurutze baten bidez agert.

Lagunen izenak	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	
Xabi					
Maidar					
Patxi					
Ximun					
Amaia					
Miren					

HILABETEEN IZENEKIN TREBATZEKO

▼ Hilabeteen eta asteko egunen izenak nahas-mahas eman. ikaslearen 5. fitxa

Haurrak bereizi behar ditu. Ondotik, hilabeteen izenak idatzi behar ditu.

HILABETEEN IZENAK ETA BEREN EDUKI SEMANTIKOA

■ Gai hau hirugarren zikloari egokiago zaio.

Hilabeteen izenek badute gutiz gehienek beren erran nahia. Azalpenei esker, haurrak aiseago ikasiko ditu eta gogoan atxikiko.

Urtarrila (urte berriko hilabetea)

Otsaila (otsoen hilabetea)

Martxoa (Marte jainkoaren hilabetea)

Apirila (eguzkitsu)

Maiatza (Maia jainkosaren hilabetea)

Ekaina (eki = eguzkia)

Uztaila (uztaren hilabetea)

Agorrila (hilabete agor edo idorra)

Iraila (iratzearen hilabetea)

Urria (urritzaren hilabetea)

Azaroa (haziaren erciteko aroa)

Abendua (Adventus : Eguberriren etorrera)

Denboraren egituraketa

Oiloek 21 egunez berotzen dituzte beren arraultzeak. Kokoilo gure laguna otsailaren 14an jarri zen arraultzeen berotzen. Kalkula ezazu noiz (data eta eguna) aterako diren xitoak ogi purruxkak presta ditzagun.

Balia zaitetz ondoko taulez kalkuluen ongi burutzeko.

martxoa							apirila						
Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.	Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
							-	-	-	1			
						14							

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Hilabeteen izenak eman itzazu.

■ Idatz itzazu falta diren hilabeteak.

urtarrila	otsaila		apirila	maiatza	ekaina
	agorrila		urria	azaroa	

■ Irakur itzazu ondoko erranaldi hauek eta gezi baten bidez hilabete egokienari lot :

<ul style="list-style-type: none"> • Eguberri gaua ospatzen dugu denek izaiaren/izarraren /sehaskaren inguruan. • Hilabeteen artean laburrena. • Gaztainak biltzen ditugu. • Hilabete osoa oporretan iraganen dugu. 	<p>urria agorrila abendua otsaila</p>
---	---

3. ariketa

Goi mailako ariketa

iraila

				Or. 1	Lr. 2	Ig. 3
Al. 4	As. 5	Az. 6	Og. 7	Or. 8	Lr. 9	Ig. 10
Al. 11	As. 12	Az. 13	Og. 14	Or. 15	Lr. 16	Ig. 17
Al. 18	As. 19	Az. 20	Og. 21	Or. 22	Lr. 23	Ig. 24
Al. 25	As. 26	Az. 27	Og. 28	Or. 29	Lr. 30	

Egun irailaren 8a da, osteguna. Ondoko hutsuneak bete itzazu laukiei begiratzuz eta ingura ezazu lauki horietan egun egokia.

Gaur zortzi, irailaren izanen da, osteguna.

gaur

iraila

				Or. 1	Lr. 2	Ig. 3
Al. 4	As. 5	Az. 6	Og. 7	Or. 8	Lr. 9	Ig. 10
Al. 11	As. 12	Az. 13	Og. 14	Or. 15	Lr. 16	Ig. 17
Al. 18	As. 19	Az. 20	Og. 21	Or. 22	Lr. 23	Ig. 24
Al. 25	As. 26	Az. 27	Og. 28	Or. 29	Lr. 30	

Bihar zortzi, irailaren izanen da, ostirala.

gaur

iraila

				Or. 1	Lr. 2	Ig. 3
Al. 4	As. 5	Az. 6	Og. 7	Or. 8	Lr. 9	Ig. 10
Al. 11	As. 12	Az. 13	Og. 14	Or. 15	Lr. 16	Ig. 17
Al. 18	As. 19	Az. 20	Og. 21	Or. 22	Lr. 23	Ig. 24
Al. 25	As. 26	Az. 27	Og. 28	Or. 29	Lr. 30	

Atzo zortzi, irailaren izanen da, asteazkena.




gaur

hilabetea

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK


1 Espazioaren eta denboraren oinarriko kontzeptuen eraikuntza

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean.	
Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegiaren ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...).	
Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentaziotik urrunduak dauden espazio abstratuagoak kondutan hartzen ditu ; bere burua horietan kokatzen ahal du.	

2 Metodologia jakintasanak



(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.)

Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da.	
--	---

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK



1 Ahozko hizkuntza erabili

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

Bere ekoizpenen, jarreraren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du.	
Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du.	

2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak


(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.).

Hiztegia : haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du.	
Ortografia : testu bat hutsik egin gabe kopia egin behar du.	



ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAKO JAKINTASUNAK




1 Matematika/neurriak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdina orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du.	
--	---

2 Munduari ohartu (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.).

Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da.	
Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean).	

Plano simple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria ; baserria ; eguraldia ; zelaia, mendia ; etxaldea, lantegia, saltegia...).	
Ikertu dituen inguruetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan.	
Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak.	

HIZKUNTZA EDUKIAK

GRAMATIKA EDUKIAK	ADIBIDEAK
<p>1. Aspektua Bururatua/ez-bururatua/gertakizuna Aditz nagusiaren aspektu-markak : -TU/-TZEN/-KO</p>	<p>Uztailean oporretara joanen gara familia guziarekin. Abenduan, Eguberriz kantatu genuen.</p>
<p>2. Tempusa *edun eta izan aditz laguntzaileekin Orainaldia/iraganaldia</p>	
- (a) N inesiboa	<p>Maiden otsailean sortua da. Heldu den irailean etorriko naiz zure ikustera.</p>
- K ergatiboa	<p>Martxoak 31 egun ditu. Azaroak 30 ditu.</p>
- (r)en genitiboa	<p>Maiatzaren 8an ikusi zaitut. Apirilaren 9an iraganen da herriko besta.</p>
HIZTEGI EDUKIAK	
Urteko hamabi hilabeteak	Urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, agorrila (abuztua), iraila (buruila), urria, azaroa, abendua.